

MUTIKO LOTSATIA

Bazen behin Lin izeneko mutiko bat. bera pertsona altua zen, begi marroiak, ile marroia eta motza zuen. Bestalde, Lin oso lotsatia, indartsua, bihotz onekoa, alaia eta dibertigarria zen.

Egun batean Linek aktore izan nahi zuen baina lotsatia zenez ez zen ausartzen eta orduan bere gurasoak ikastolako antzerki taldean apuntatu zuten lotsa gainditzeko. Hortik egun batzuetara bere gurasoek ikusi zuten oso ondo moldatzen zela baina oraindik lotsa pixka batekin jarraitzen zuen eta orduan psikologo bati deitzea bururatu zitzaien. psikologoarengana hilabeteen joan behar zen eta lotsa apur bat gainditzeko lortu zuen. Antzerki taldera itzuli zenean bere irakasleak esan zion hurrengo saioan aktore profesionalekin joango zela. Orduan Lin oso pozik joan zen etxera.

- Ama hurrengo saioan aktore profesionalekin ibiliko naiz

Heldu zen eguna aktore profesionalekin lan egiteko, baina etxetik irtetzen ari zela atariko eskaileretatik behera erori zen eta hanka hautsi zuen. Gero ospitalera joan ziren eta medikuak astebete eskaiolarekin egon behar zela esan zion, aste horren barruan denbora guztia etxean zegoen telebista ikusten eta entseatzen pelikula ondo operatzeko. Hiru hilabete igaro ondoren Lin sendatu egin zen eta aktore profesionalekin entseatzen hasi zen. Zuzendariak hurrengo egunean hasiko zirela esan zien Lin eta besteei, orduan Lin korrika joan zen etxera gurasoei kontatzera. Linen gurasoak arropa prestatzen hasi ziren dotore joateko.

- Lin bihar ahalik eta dotoreen joan behar da

Hurrengo goizean Lin bere aitarekin joan zen antzokira, heldu zirenerako zuzendaria eta eta besteak prest zeuden jada. Bi minutu falta ziren pelikula grabatzeko, orduan Linen aita joan egin behar zen ezin zen hor gelditu ikusten.

- Zorte on Lin

Lehenengo sailakeran ez zuten ondo grabatzea lortu txoritxo bat sartu zelako momentu hartan, orduan zuzendaria oso azerre jarri zen.

- Txori madarikatua
- Ez itzuli ona berriro bestela

Linek momentu artan ezan zion

- Lasai egon berriro hasi gaitezke
- Baina ahalik eta sailakera gutxien hobeto izango da
- Bai zeguru hurrengo sailakeran baietz nire promesa duzu

Espero horrela izatea.

Bigarren sailakeran denbora gehiago egon ziren grabatzen baina ez zuten lortu haize bolada batek atea ireki zuen eta orduan kaleko jendearen ahotsa entzuten zirelako. Hirugarren sailakeran bi esaldi falta zitzaion amaitzeko baina bere taldekide bat soinekoarekin erori egin zen. Taldekidea sendatzen zebilen bitartean Lin eta bere zuzendaria hizketan hasi ziren ea taldekidea ondo jartzen

zen pelikularekin jarraitzeko.

- Zer gertatzen da ez bada ondo jartzen?
- Ez da ezer gertatzen beste egun batean egingo genuke
- Bale!

Laugarren sailakeran ondo zihoala ematen zuen baina ez zen oso ondo irten taldekideari ahaztu egin zitzaion zer esan behar zuen, orduan kamarak moztu egin zuen eta berriro hasi behar zirela esan zuen

- Espero dut oraingoan ondo irtetzea
- Nik ere bai, orain arte ez zaigu oso ondo irten

Bostgarren sailakeran dena ondo irtetzea lortu zuten, orduan pelikula hori oso ospetzua egin zen.

Hori dela eta, aktore guztiak dirudunak egin ziren batez ere Lin, protagonista zelako, orduan pelikulako aktore, zuzendari, kamara, guztiak bidaian joan ziren Linek erositako jate handian Australiara

- Lin arrazoi zenuen, pelikula oso ondo urtetzea lortu dugu
- Bai espero nuena baino hobeto egin dugu.
- Benga goazen afaltzera txuletak ditugula.

LIN